


**UDALETXEA
A MAILA****IJENTEA 1****Egilea eta data: Luis Aladren eta Adolfo Morales de los Rios, 1882****Deskribapena**

Eraikin berezia da, hirian duen kokapenagatik. Eraikinaren fatxada nagusiak Alderdi Ederreko lorategien antolamendua ezartzen du, plataforma baten bidez. Aldi berean, Kontxa pasealekuaren hiri errematea egiten du Boulevarderantz. Eraikina erdiko gorputz batek eta alboko bik osatzen dute. Horiek komunikazio galerien bidez elkartuta daude, eta erdialdea gehiegi zatikatuta dago bere tamainarekiko, zenbait eragin biltzen dituen eklektizismoaren barruan. 1882an eraiki zuten Luis Aladren eta Adolfo Morales de los Rios arkitektoek, Europako udako gunetako kasinoetan inspiratuta. Eraikinerako, ezaugarri hauek hautatu zituzten: *"arina eta mugitua, irtengune, begiratoki eta terraza ugariren bidez, begiradak erakartzeko, eta aisia eta erosotasuna eskaintzeko"*. Jatorrian, behe oinean kafetegia eta jangelak zeuden, eta joko aretoak goi oinean. Espazio esanguratsuenen artean, eskailera nagusi handia nabarmentzen da. Harrizko hormez, Mutrikuko kareharriz, Uliako hareharriz, eta burdinazko eta zurezko egitura mistoaz dago eraikia. 1923ko udan, Kasino Handiak atek itxi zituen, Kursaalera eraikin zaharrera lekualdatu ondoren, 1941etik aurrera udaletxe bihurtzeko. Gela bikainenak eta altzarien zati bat mantendu egin dira. Obrak Luis Arizmendi arkitektoak zuzendu zituen eta 1947an amaitu zituzten. Kanpotik, eraikinaren atzealdeko fatxada aldatu zuten, areto nagusiko (egungo udalbatzen aretoko) buru horma zabaldua. Behe oinean, atari bat zabaldu zuten eta dantza aretoko *"fumoir"*-a osatzen zuten pabilioi beiratzatuak ezabatu zituzten. Era berean, Ijenteako lorategiak eta iturriak berregin zituzten eta, 1951n, etxebaia aldatu zuten erakusketa gelak ezartzeko.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berriazko erregimena:
Monumentu historiko-artistiko nazional deklaratu izanaren ondoriozkoa -265/1984 Dekretua (132. EHAA, 1984-8-4koa)- eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuan ezarritakoa.